

# IRISGARRITASUN UNIBERTSALA 2023

## Justifikazioan aurkeztu beharreko agiriak (12. artikulua)

1. LERROA.- Irisgarritasun unibertsaleko plan integralak (PIAU) egitea eta idaztea	JUSTIFIKAZIOA AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:
<b>AGIRIAK:</b>	
<b>HASIERAKO ORDAINKETA</b>	<b>2024-11-15</b>
*Egun hori baino lehen jarduketa hasi dela justifikatzen ez bada, emandako dirulaguntza galduko da.	
Lizitazioaren argitalpena / Esleipenaren ebazpena / Sinatutako kontratua	a.
<b>AZKEN ORDAINKETA</b>	<b>2025-10-31</b>
Amaitutako PIAUaren alea.	a.
Dagokion publikizitatea 11. artikuluan xedatutakoaren arabera egin dela egiaztatzea.	b.
Formalizatutako kontratuari dagozkion fakturak	c.1
Fakturen ordainagiriak	c.2
Erakunde onuradunaren ziurtagiria, honako hauek jasotzen dituena: lerro honetan emandako dirulaguntzaren xedea eta helburua bete direla, horretarako bideratutako zenbatekoak, eta jarduketa sektore publikoan kontratazioari aplikatu beharreko araudiaren arabera kontratatu dela.	d.
Erakunde onuradunaren ziurtagiria, helburu bererako beste dirulaguntza batzuei buruzkoa, eskatutako eta emandako zenbatekoak zehazten dituena eta BEZa finantzatu den adierazten duena.	e.
<b>2. lerroa.- PIAUetan aurreikusitako irisgarritasun-arloko jarduketak gauzatzea</b>	
<b>AGIRIAK:</b>	
<b>HASIERAKO ORDAINKETA</b>	<b>2024-11-15</b>
*Egun hori baino lehen jarduketa hasi dela justifikatzen ez bada, emandako dirulaguntza galduko da.	
Lizitazioaren argitalpena / Esleipenaren ebazpena / Sinatutako kontratua	a.
<b>2025eko ORDAINKETA PARTZIALA</b>	<b>2025-10-31</b>
Orain arte egindako obra-ziurtagiriak, laburpenarekin eta kapituluaren eta partiden banakapenarekin.	a.
Ziurtagiriei dagozkien fakturak	b.1
Fakturen ordainagiriak	b.2
<b>2026ko ORDAINKETA PARTZIALA</b>	<b>2026-07-31</b>
Orain arte egindako obra-ziurtagiriak, laburpenarekin eta kapituluaren eta partiden banakapenarekin.	a.
Ziurtagiriei dagozkien fakturak	b.1
Fakturen ordainagiriak	b.2
<b>*Gutxienez, urte bakoitzean ordainketa bat dakarren justifikazio bat aurkeztu beharko da, nahiz eta jarduketa amaitzeko epea luzatzea eskatu eta onartu den.</b>	
<b>AZKEN ORDAINKETA</b>	<b>2026-10-31</b>
Azkeneko obra-ziurtagiria, laburpenarekin eta kapituluaren eta partiden banakapenarekin.	a.
Ziurtagiriei dagozkien fakturak	b.1
Fakturen ordainagiriak	b.2
Obra-hasierako akta (zuinketa-akta).	c.
Obra-harreraren akta (harrera-akta).	d.
Egindako obraren eta ingurune hurbilaren argazki-dokumentazioa, formatu digitalean, eta jarduketaren alderdi guztiak bistartzeko definizio nahikoa duela.	e.
Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearekin bat etorritik, teknikari eskudunaren ziurtagiria, gauzatutako jarduketak irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzen duela ziurtatzen duena: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.	f. g.
Gainera, eraikinetan egindako jarduketaren kasuan, Eraikuntzaren Kode Teknikoa-DB SUAn ezarritako oinarritzko eskakizunak betetzen direla egiaztatuko da, eta, hiri-inguruneko jarduketaren kasuan, uztailearen 23ko TMA/851/2021 Agindua, espazio publiko urbanizatueta iristeko eta horiek erabiltzeko oinarritzko irisgarritasun-baldintzei eta diskriminaziorik ezari buruzko dokumentu teknikoak garatzen duena.	
Erakunde onuradunaren ziurtagiria, honako hauek jasotzen dituena: lerro honetan emandako dirulaguntzaren xedea eta helburua bete direla, horretarako bideratutako zenbatekoak, eta jarduketa sektore publikoan kontratazioari aplikatu beharreko araudiaren arabera kontratatu dela.	h.
Erakunde onuradunaren ziurtagiria, helburu bererako emandako beste dirulaguntza batzuei buruzkoa, eskatutako eta emandako zenbatekoak zehaztuta, eta BEZa finantzatu den adierazita.	i.
Obra-amaierako ziurtagiria, gainbegiratua edo bisatua, jarduketa mota dela-eta nahitaezkoa denean, eta beti diruz lagundutako igogailuen eta plataformen kasuetan.	j.
<b>Igogailuen eta plataformen kasuan:</b> instalazioa martxan jarri izanaren ziurtagiria, autonomia-erkidegoko organo eskudunak baimendua.	k.
Dagokion publikizitatea 11. artikuluan xedatutakoaren arabera egin izanaren egiaztatzea.	l.
<b>Indarrean dagoen irisgarritasun-plana 2020 baino lehenagokoa bada:</b> Idatzitako PIAUaren alea. PIAUaren idazketa deialdi honetako 1. lerroaren bidez diruz lagundu bada, nahikoa izango da dirulaguntza horren espediente-zenbakia identifikatzen duen dokumentu bat aurkeztea.	m.